

JOLAS

BIRZIKLATUETARAKO

KIT-A



MENDI
zabala

Liko Ikastetxe Integratua
Centro Integrado de FP



ikasLAN

start
Innova



0. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

J.ALAI jolas klasikoak berreskuratu nahi dituen negozio-ideia da, elkarlana nahiz birziklapena bezalako baloreak bultzatuz. Gure produktua mahai-jolasak sortzeko kit jasangarria da, bezeroak bere nahietara egokitzeko osatu behar duena. Kit honen bidez xakea, damak, antzararen jolasa, partxisa, dominoa, scattergories eta konekta lau joko eskuragarri eta dibertigarriak jolastu daitezke.

Proiektuaren berezitasun nagusiak ingurumenarekiko errespetua eta jasangarritasuna dira, material birziklatuak erabiliz jokoak sortzean oinarritzen baita. Are gehiago, jolas hauen bitartez sormena eta garapen kognitiboa sustatzen ditugu, maiz talde-lana eta elkarrekintza sustatuz.